

ZIURTAPENERAKO DEIALDIA

STEAM REFERENCE SCHOOL

2024

Deialdi honekin, Grupo Edelvivesek eta teknologia eta hezkuntza arloko entitate kolaboratzaileek bi helburu bete nahi dituzte.

Lehen helburua da ikastetxeei STEAM esparrua eta kultura hezkuntza proiektuan txertatzeko dauden hezkuntza arloko arrazoi ugariak ikusarazten laguntzea.

Bigarren helburua da bide horri ekin dioten ikastetxe guztiei ahalegina, bidea, proiektzioa eta eredugarritasuna aitortzea. Ikastetxe horiek eboluzionatzeko, besteengandik ikasteko eta ikasgeletan STEAM arloa natural bihurtzeko bidean erreferentzia bihurtzeko ere prest daude.

Ziurtapen honen bidez, eskola eremuan STEAM hezkuntza ezartzea dinamizatu nahi da, eta balioa eman irakasle gogotsuek diseinatzen dituzten proiektu ugariari. Proiektu horiek erabiltzen dituzte, hain zuzen, diziplina arteko lana sendotzeko, gaitasunak garatzeko, GIHak (Garapen Iraunkorrerako Helburuak) hedatzeko eta betetzeko, ingurunea hobetzeko lanetan inplikatzeko, bokazio zientifiko eta teknologikoetara bideratzeko, eta gizartean nahiz lanean erabateko berdintasuna lortzeko emakumeen erreferentziak aurkezteko.

STEAM REFERENCE SCHOOL ZIURTAPENAK lau aplikazio maila ezartzen ditu ikastetxeek haien proiektuari, lidergoari, ekipamenduari, esperientziari eta irakasleen prestakuntzari egiten zaien azterketatik eskuratutako kalifikazioarekin lotuta.

- Brontzezko maila
- Zilarrezko maila
- Urrezko maila
- Platinozko maila



**STEAM
REFERENCE
SCHOOL**

Ikastetxe bakoitzari zer maila dagokion erabakitzekeo, zenbait lorpen adierazle ezarriko dira, bost kategoriatan banatuta:

1. Ikuspegi didaktikoa

Kategoria honetan, aintzat hartuko da ea STEAM hezkuntza ikastetxearen hezkuntza proiektuan txertatuta dagoen, eta ea zer neurritan dagoen txertatuta.

2. Ezarpena eta lidergoa

Kategoria honetan balioztatuko da ea STEAM hezkuntza hezkuntzako etapetan zenbateraino dagoen ezarrita, eta ea badagoen erreferentziazko irakaslerik hura aplikatzeko.

3. Ekipamendua eta instalazioak

Kategoria honetan, ikastetxeak STEAM hezkuntza aplikatzeko dituen materiala eta instalazioak aztertuko dira.

4. Hedapena, parte hartzea eta lankidetzak

Ea ikastetxeak STEAM esperientziak eskola komunitatean hedatzen dituen balioztatuko da.

5. Prestakuntza

Kategoria honetan, irakasleek STEAM hezkuntzan eta hura osatzen duten diziplinetan zer prestakuntza maila duten hartuko da kontuan.

Alderdi horietako bakoitza irizpide edo adierazle sorta baten inguruan antolatuko da, eta horiek aztertu eta justifikatu beharko ditu ikastetxe bakoitzak ziurtapenaren maila bat edo bestea lortzeko.

Ziurtapena lortzeko, ikastetxe guztiek nahitaez lortu behar dituzte puntuak kategoria bakoitzean.

Ziurtapenak urtebeteko indarraldia besterik ez du izango. Maila altuagoko ziurtapena eskuratzeko, ikastetxeek berriro aurkeztu beharko dituzte proposamenak, eta berriro pasatu ziurtapen prozesutik.

Grupo Edelvivesek eta entitate kolaboratzaileek konpromisoa hartzen dute ziurtapena, bi modu hauetan, ikusgarri egiteko:

1. Ikastetxeari ziurtapen plaka bat ematea, bertan lortutako maila, ziurtapenaren urtea eta ikastetxearen izena adierazita.
2. Emaizta Grupo Edelvivesen webgunean eta haren sare sozial guztietan argitaratzea.

Ziurtapena eskuratutako ikastetxeek ere parte hartu beharko dute emaitzaren hedapenean, haien komunikazio kanaletan berriaz aipatuta.

Mailak esleitzeaz gain, deialdi bakoitzean aipamen berezi batzuk egingo dira, ikastetxe batzuek STEAM arloan egindako lana eta merezimenduak aitortzeko, edozein dela ere dagokien maila.

Hemen azalduko ditugu STEAM REFERENCE SCHOOL ZIURTAPENA lortzeko prozesuan parte hartu nahi duten ikastetxeentzako deialdi honen oinarriak, harremanetarako datuak eta bete beharreko agiriak.

2024KO OINARRIAK - STEAM REFERENCE SCHOOL ZIURTAPENA

1. STEAM REFERENCE SCHOOL ZIURTAPENA eskuratzeko prozesuan parte hartu ahal izango dute Espainiako zein nazioarteko ikastetxe publiko, itunpeko eta pribatu guztiek.
2. Urtebeteko indarraldia du ziurtapenak, eta berriitu egin daiteke, hurrengo deialdian dagokion dokumentazioa aurkeztuta.
3. Ziurtapen maila (brontzea, zilarra, urrea, platinoa) ikastetxeak haren STEAM proiektuaren ebaluazioan lortzen duen puntuazioaren arabera izango da.
4. Grupo Edelvivesek eta entitate kolaboratzaileek konpromisoa hartzen dute ziurtapena, bi modu hauetan, ikusgarri egiteko:

- a. Ikastetxeari ziurtapen plaka bat ematea, bertan lortutako maila, ziurtapenaren urtea eta ikastetxearen izena adierazita.
- b. Emaizta Grupo Edelvivesen webgunean eta haren sare sozial guztietan argitaratzea.

Mailak esleitzeaz gain, deialdi bakoitzean aipamen berezi batzuk egingo dira, ikastetxe batzuek STEAM arloan egindako lana eta merezimenduak aitortzeko, edozein dela ere dagokien maila.

5. STEAM REFERENCE SCHOOL ZIURTAPENAREN deialdi honetan parte hartu nahi duten ikastetxeek certificaciones@grupoedelvives.com helbide elektronikora bidali behar dute haien eskaera, 6. atalean adierazitako dokumentazioarekin batera.

Mezu elektronikoaren gaian STEAM REFERENCE SCHOOL 2024 DEIALDIA adierazi behar dute, eta mezuan, berriz, ikastetxearen izena, agiriak aurkeztu dituen pertsonaren helbidea eta izen-abizenak, helbide elektronikoa eta harremanetarako telefonoa.

6. Honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte ikastetxeek:

- Ikastetxearen deskribapena (I. eranskina)
- Jardueren laburpena (II. eranskina)
- Justifikazioa eta dokumentazioa (III. eranskina)

OHARRA: Dokumentazioa aurkezteko formatuari buruzko oharra.

Marjinak:

Goian eta behean: 2,5 cm

Ezkerrean eta eskuinean: 3 cm

Letra tipoa: calibri

Testuaren eta izenburuen neurria: 11 puntu

Lerrokadura: paragrafoak eskuineko eta ezkerreko marjinetan justifikatuta

Lerroarte: bakuna

Tartea: 0 puntu

7. Dokumentuak, gehienez, 15 orrialde izango ditu, alde bakarretik mekanografiatuta.
8. Agiriak aurkezteko epea 2023ko azaroaren 1ean hasiko da eta 2023ko abenduaren 15ean amaituko da.
9. Proiektuak hautaketa batzorde batek aztertu eta balioztatuko ditu, eta honako hauek osatuko dute batzordea: hezkuntza eta teknologia arloko entitate kolaboratzaileetako titularrek edo haiek eskuordetutakoek.

Batzordearen presidentek beste pertsona bat ere izendatuko du, idazkari lanetarako. Era berean, batzorde horrek adituen aholkuak jaso ahal izango ditu proiektuak balioztatzeko.

10. 2024ko martxoaren 1ean, ebaluazioa gainditu dutenek ziurtapena eskuratu izanaren jakinarazpena jasoko dute. Grupo Edelvivesek eta entitate kolaboratzaileek data hori aldatzeko eskubidea izango dute beharrezkoa bada.

11. Ziurtapena lortzeko dokumentazioa aurkezteak esan nahi du aurkeztu duena ados dagoela oinarri hauekin.
12. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan eta aplikagarri diren gainerako arauetan ezarritakoa betez, STEAM REFERENCE SCHOOL ZIURTAPEN prozesuan parte hartzen dutenek baimena ematen diote Grupo Edelvivesi haien datu pertsonalak ziurtapen prozesuko parte hartzea kudeatzeko erabiltzeko. Datuak babestearen inguruan aplikagarri den legeriak aitortutako eskubideak erabili ahal izango dituzte, posta elektronikoz dpo@edelvives.es helbidera, edo posta arruntez beste helbide honetara idatzita:

Grupo Edelvives
A/A Departamento Legal
Calle Xaudaró, 25
28034 Madrid

I. ERANSKINA. IKASTETXEAREN DESKRIBAPENA

INFORMAZIO OROKORRA	
Ikastetxea	
Izena (ofiziala)	
Helbidea	
Telefono zenbakia	
Helbide elektronikoa	
Sare sozialak (halakorik balu):	
Facebook	
Instagram	
Twitter	
Linkedin	
Dokumentazioa aurkezten duena (izen-abizenak, kargua, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa)	
Ikasle kopurua	
Ikasgela kopurua	

II. ERANSKINA. JARDUEREN LABURPENA

Seinalatu taulan zer item justifikatuko eta dokumentatuko diren III. eranskinean.

1. IKUSPEGI DIDAKTIKOA	Ikastetxeak badu STEAM hezkuntza sustatzeko plan bat bere hezkuntza proiektuan.	
	STEAM hezkuntza askotariko metodologia aktiboak txertatzeko ikaskuntza baliabidetzat hartzen du ikastetxeak, eta metodologia aktibo horien artean daude proiektukako lana, problemetan oinarritutako ikaskuntza, ikaskuntza zerbitzua eta abar.	
	Ikastetxeak hezkuntza inklusiboa, aukera berdintasuna eta bokazio zientifikoak sustatzeko bide gisa erabiltzen du STEAM hezkuntza.	
	Ikastetxeak iraunkortasunarekin eta Garapen Iraunkorrerako Helburuekin konpromisoaren erakusgarri aplikatzen du STEAM hezkuntza.	
2. EZARPENA ETA LIDERGOA	Ikastetxea pilotatze fasean dago, edo izan du STEAM esperientzia jakinen bat.	
	Ikastetxeak etapa bateko edo batzuetako maila batzuetan garatzen ditu STEAM proiektuak.	
	Ikastetxeak erabat txertatuta dauka STEAM hezkuntza etapa guztietako maila guztietan.	
	Ikastetxea erreferentzia eta eredia da beste ikastetxeentzat, eta bisitatu daiteke.	
3. EKIPAMENDUA ETA INSTALAZIOAK	Ikastetxeak baditu material didaktikoa, gailuak, robotak, inprimagailuak...	
	Ikastetxeak tresna digitalak erabiltzen ditu STEAM hezkuntza garatzeko; hala nola plataformak, aplikazioak edo programa informatikoak.	
	Ikastetxeak STEAM ikasgela gisa identifikatutako ikasgela espezifiko bat du, behar bezala hornitua.	
	Ikastetxeak baditu STEAM ekitaldiak antolatze materialak eta espazioak.	
4. HEDAPENA, PARTE HARTZEA ETA LANKIDETZA	Ikastetxeak hedatu eta partekatu egiten ditu STEAM proiektuan dituen esperientziak, familiekin, inguruko beste ikastetxe batzuekin (auzokoak/udalerrikoak), sareetan...	
	Ikastetxeak STEAM jardunaldiak antolatzen ditu edo haietan parte hartzen du.	
	Ikastetxeak baliabideak sortzen ditu STEAM proiektuetarako.	
	Ikastetxeak enpresetara bisitak egitea sustatzen du, STEAM bokazioak bultzatzeko.	
5. PRESTAKUNTZA	Ikastetxeak kanpoko prestakuntza plan bat du irakasleei STEAM prestakuntza eskaintzeko.	
	Ikastetxeko irakasle batzuek STEAM arloko prestakuntza ematen diete lankideei.	
	Ikastetxeak STEAM arloko prestakuntza eskaintzen die beste ikastetxe batzuetako irakasleei.	
	Ikastetxeak STEAM arloko prestakuntza plan bat du familientzat.	

III. ERANSKINA. JARDUEREN ETA DOKUMENTAZIOA

1. Ikuspegi didaktikoa
2. Ezarpena eta lidergoa
3. Ekipamendua eta instalazioak
4. Hedapena, parte hartzea eta lankidetzaz
5. Prestakuntza

STEAM REFERENCE SCHOOL

Teknologia eta hezkuntza adoko
enpresa handiek bermatutako ziurtapena

SAMSUNG

DELL
Technologies

intel

 **Microsoft**

 **GRUPO EDELVIVES**

 **FUNDACIÓN
EDELVIVES**

 **Academia
de inventores**

 **gae**
ADVANCED
EDUCATION

 **Escuela de
Ingeniería y Arquitectura
Universidad Zaragoza**

 **KUBO**